



ONDARROAKO UDALA

## Ingurumen batzordeko akta

Noiz: 2012ko otsailak 3

Ordua: 18:00

Non: Ondarroako udaletxeko 2. solairua

Agertutakoak: Oier Espilla, Irene Zaton, Mari Kruz Lekunberri, Mari Tere Kaltzakorta, Ibai Muñiz, Fernando Salegi, Joseba Zabaleta

1 – Aurreko akta onartzen da

2 – ZUHAITZ ASTEA

- Irteera ikastetxeekin habiak ipini eta zuhaitzak landatzera.
  - Habiak ipintzeko kanposantu atzeko lurrak eta Artibai kaleko parkea proposatu dira. Zuhaitzak landatzeko Artamuturreko udalaren lurrak.
  - Ikastetxeetako 5 eta 6 mailak etorriko dira, eta hiru taldetan banatuko gara, bakoitza toki batera.
  - Ostiral goiz batean egingo dugu, martxo hasieran.
  - Gereziondoak, sagarrondoak, gaztainondoak edota pikondoak landatzea proposatu da. Zainketa gutxien eta gogorrenak direnak erostea hobetsi da.
  - Asegurua eskatu behar dugu, baita arbolak erosi eta habiak eskatu ere (Diputazioan). Hasi bitartean arbolei eusteko egurrezko egiturak ere beharko dira.
  - Hurrengo baterako: Felix teknikariak herriko arbolen zerrenda dauak. Liburuxka bat atera dezakegu.
- Hitzaldia
  - Naia Gartzia ondarrutarrak hitzaldi bat emango du Markinan Euskal Herriko basoen iragana eta etorkizunari buruz. Ondarroan emateko ere proposatuko zaio.
- Fruta arbolak inausteko ikastaroa
  - Urki Gojenolari proposatu zaio eta baietz esan du. Berak esan dezala zein data den ona. Herritar guztientzat izango da, debalde. Zerrendak ipiniko dira jendea apuntatzeko.
- hurrengorako espezie inbaditzaileen inguruan zeozer egitea proposatu da
  - IHOBek dirulaguntzak ematen ditu



## ONDARROAKO UDALA

- Laster araudi bat aterako da, udalei espezie exotikoak landatzea debekatuko diena
- Eusko Jaurlaritzak edota Aldundiak Ondarroako ibaian eginda dauzkan biodibertsitate ikerketen bila dabilta batzordekideak, zer dagoen ikertuta jakiteko. Horren arabera, beste ikerketa batzuk aginduko ditugu.
- Atxazpin panpa belar asko daude.

### 3 - ERREKA ASTEA

- Maiatzeko lehenengo astean egingo da
- Eskuorria
  - Kaiet Bengoetxeari esan zaio marrazkiak egiteko, eta onartu du
  - Herriko uraren zikloa zein den erakutsiko dugu, eta uraren kontsumoan kontzientzatuko dugu
  - Herriko etxe guztietara banatuko da
  - Eskuorrian portuko uren inguruko ezer sartuko den galdetu da. Horri buruzko informaziorik lortzea zaila da.
- Irteera herriko uraren zikloa ezagutzeko
  - Ikastetxeekin egitea proposatu da, DBH 3koekin.
  - Baixako goizean egingo dugu.
  - Bi aukera egongo dira. 1) Bizikletan Gorozikako ur biltegira joatea eta gero Galtzuarango araztegiara edo 2) Galtzuarango araztegiara oinez joatea Alamedatik.
  - Ezintasunak dituztenentzat furgoneta bat edo lortu behar da.
  - Araztegiakoei baimena eskatu behar zaie, Ertzaintzari ere bai. Araztegiakoei galdetu behar zaie ea eurek emango dituzten azalpen guztiak.
  - Segurua kontratatu behar dugu
- hitzaldia
  - URAkoei galdetu zitzaizen baina eurek ez dute hitzaldirik antolatzen, bakarrik teknikoak bidali mahainguruetara
  - Iñaki Antiguedad ekartzeko aukerak daude. Berak ezin badu, berak esatea ea zein den interesgarria.
  - Biologoek kolegioan ere galdetu dezakegu, ea nor etor daitekeen.
- Erreka garbitu
  - Gaztelegiakoei eta Ur Kirol elkarteari proposatuko zaio
  - Segurua eskatu behar da
- Ondarroako ura Larruskaindik ekartzen da, eta hurrengo batean bertara joatea proposatzen da. Handik hartzen dugun ura bertakoei kentzen diegu.



## ONDARROAKO UDALA

- Hurrengo urterako ideia bereziren bat edukiz gero, proposatzeko eskatu da. URAREN dirulaguntzak handiak direla eta.

### 4 – Besterik

- Hemendik aurrera, eta ahal dela, asistentzia baieztatzea eskatuko da, zenbat agertuko garen jakiteko.
- Hondartzako hitzarmena sinatu dugu Aldundiarekin, beste 5 urterako.
- Beste herri batzutan ezinduak bainatzera eramateko programak ei daude. Ongizate batzordekoak horretan lanean dabilta.